

OPE
2007



2007ko
LEP

2. ariketa.

EGOERA PRAKTIKOAK. Galderak

KODEA Lanpostua/k

B-6023 GIZARTE LANGILEA

Data: 2008/02/01

Denbora, gehienez: 240 min.

EREDUA:	A
	B
	C

Ez zabaldu esan arte. Proba bukatzean ale hau zeurekin eraman dezakezu.

48 urteko emakumea da Ailega Tunaiz-Ona, Senegaletik etorria, geroztik penintsulako hainbat herritan bizi izandakoa, hala nola Algeciras, Murtzia eta Valdepeñasen. 19 urteko seme bat eta bi alaba -bata 15 urtekoa eta bestea 10ekoa- ditu bere gain, eta hiru urte eta erdi darama Gasteizen bizitzen.

Hasiera batean bi alabekin iritsi zen Gasteiza, eta lehenengo 28 hilabeteetan etxebizitza partekatu batean bizi izan ziren -herrikide ezagun batzuen laguntzari esker lortu zuen etxe horretan bizitzen jartzea-. Hainbat okupazio eta lan izan ditu, hala nola neskame, ile-apaindegi etniko bateko langile, industri garbiketen alorreko gizarteratze enpresa bateko langile eta abar. Musika gustatzen zaio, afro musika abesbatza batean abesten du eta dantza etniko talde batean parte hartu du alaba nagusiarekin batera. Gaur egun nahiko ondo daki gaztelaniaz (ahoz nahiz idatziz); izan ere, lau ikastarotan matrikulatu da, jarraian, Paulo Freire HHI ikastetxean, eta erregularitasunez joan izan da eskoletara.

Gerora, beraren bikotekidea eta seme nagusia elkartu zitzaizkion familiari. Beste hiru hilabetez etxebizitza partekatzen jarraitu zuten, baina alokairu etxebizitza bat lortu zuten gero, familiarentzat. Diru-sarrerak Ailegaren lanetik zetozen, eta tarteka-marteka haren bikotekide Nagoken laguntzatik, nahiz eta biak ere hainbat unetan, baita gaur egun ere, egoera dokumental irregularrean egon, lan- eta egoitza-baimenik gabe, eta lan-errentak, horrenbestez, zenbaitetan ekonomia murgildutik etorri.

Nagoki izugarri kostatzen zaio Gasteizko gizartean integratzea, eta, hori dela eta, herrikideekin baino ez ditu harremanak. Duela gutxi Senegaldarren Arabako Elkarteko (SAE) zuzendaritza-batzarrean sartu da, eta elkarte horren egoitzan ematen du eguneko denborarik gehiena.

Seme nagusia *Gasteiz* Lanbide Hastapenerako Zentroan matrikulatuta egon da, eta une honetan pintura ikastaro bat egiten ari da lanerako prestakuntzako udal zentro batean. Alabak behar bezala eskolatuta daude, eta Ailegak ikastetxearekin duen harremana trabagabea eta arduratsua da. Hala ere, nolabaiteko atzerapena daramate alabek eskolan, batez ere txikienak, zeinek eskola-absentismo aski handia baitu; izan ere, gaixotasun neurologiko bat du (epilepsia), medikazioa modu sistematikoan ematea eskatzen duena, eta beti ez zaio behar bezala ematen (ama arduratzen bada bakarrik). Hori dela eta, ama -67 urtekoa- ekartzeko aukera aztertzen aritu da Ailega, alabak zaintzen lagundu diezaion.

Lanik izan ez dutenean, Udalaren Oinarrizko Gizarte Zerbitzu batera jo izan dute, eta dagozkien oinarrizko prestazioak jaso dituzte (2007an, 710 euro hilean, Oinarrizko Errenta gisa, eta 290 euro hilean, Gizarte Larrialdiko Laguntza gisa). Gizarteratze hitzarmena izenpetu zuten zegokien gizarte langilearekin, eta hainbat prestakuntza-jardueratan parte hartu dute -etxeko gaitasunei buruzko ikastaroa eta ostalaritza ikastaroa emakumeak, eta gizonak, berriz, iturgintza eta berokuntza ikastaro bat, 200 ordukoa, nahiz eta, gaztelania ongi ez dakienez, ez dion probetxu handiegirik atera, eta, beraz, prestakuntza-jarduera errepikatu beharra daukan). Gaur egun lanik gabe daude, eta ohiko lan merkatura sartzeko zailtasunak dituzte, eta, gainera, ez daukate modu autonomoan bizitzeko aukerarik, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan izapidetzen dizkieten laguntzei esker bizi baitira.

Azken sei hilabeteetan genero-indarkeria egoera bizi lezaketela atzeman delarik, udalak genero-indarkeria jasaten duten emakumeentzat duen berariazko gizarte larrialdietarako etxebizitza batean bizitzera pasatu dira Ailega eta haren hiru seme-alabak. Bi alabek ikasten duten ikastetxetik Oinarritzko Gizarte Zerbitzura bidalitako jakinarazpenei esker izan da posible egoera horretaz ohartu eta jabetzea. Bi adingabeen bizipenak, gainera, salaketa judizial bat jartzea ekarri du berekin.

Behin eta berriz bizi izan zituen Ailegak tratu txar fisikoak, eta sei hilabeteren buruan beldurra, etsipena eta izua erakusten zuten portaerak agertu ziren. Gaur egun egonezin larria eragiten dioten gertaerak gogoratzen eta amesten dituela adierazi du elkarrizketa egin zaionean.

Zenbaitetan oroitzapen horiek benetakoak balira bezala sumatzen ditu, eta, elkarrizketatzailearen ustez, ilusioak, haluzinazioak eta disoziazio-aldiak ageri ditu. Duen portaera, bereziki egonezin psikologiko bortitza, testuinguru desberdinetan eta indarkeria-egoerekin zerikusia duten estimuluen aurrean azaldu ohi da.

Bigarren elkarrizketan, gainera, loak hartzeko eta lo egiteko zailtasunak dituela adierazi du, baita suminkortasuna, hiperzaintzea, gehiegizko izualdi-erantzunak... Gerora, elkarrizketatzailearen hurbiltasuna eta enpatia sumatu ondoren, negar egin du, eta gertakari horiek estres handia eta trauma sakona sortu dizkioten esperientziak izan direla azaltzen du, bere bizitza bera arriskutan ikusi izan duela.

Haserre bizia eta gisa horretako emozioak erakusten ditu, abuliarekin, isilaldiekin eta gogorik ezarekin aldizkatuta, beste inork berari buruz botatzen dituen iritziak entzuten dituenean, bere ondoez somatiko etengabeen aurrean erakusten duen inhibizioa dela eta, edo bere deuseztasun, lotsa, etsipen, sinesmen-galera eta etengabeko arrisku-sentsazioaren gaineko auto-berbalizazioak direla eta.

Azken erantzun horiek haren errendimendu soziala galarazten dutela ematen du, eta zailtasunak sortzen dizkiola pertsonarteko harreman berriak, bereziki, bikote-harreman afektiboak hasi edo mantentzeko, eta gizarteratze hitzarmena betetzeko egiten dituen prestakuntza lantegi eta ikastaroei probetxua ateratzeko. Aldi berean, defizit handiak ditu enpleguak aurkitu eta mantentzeko, seme-alaben hazierari dagokionean asertibo izan eta hezkuntza-mugak finkatzeko, bereziki alaba txikiaren kasuan. Bere hitzetan, "atsekabezko etorkizunaren sentsazioak hartzen du".

Gizarte langileak, kasu honetako egungo egoeraren aurrean, hauxe egin behar du:

	Balioa	
1	12,00	Famili unitate horrek gaur egun erakusten duen egoera/arazoaren diagnostiko soziala egin. Diagnostikora iristeko Eskuhartze Profesionalerako Plan bat (E.P.P.) egin behar du aldez aurretik.
2	8,00	<i>Gizarteratze hitzarmen</i> berri bat negoziatu eta izenpetu emakumearekin.
3	8,00	<i>Sustraitze txosten soziala</i> egin, emakumeak Gobernuaren ordezkariordetzan aurkez dezan, erregularizazio dokumentala eskatzeko, sustraitze figuraren bitartez.
4	12,00	<i>Eskuhartze komunitariorako proiektu bat</i> egin, zehazki, "informazio eta sentsibilizazio sozialerako" proiektu bat, kasu honetan berariaz planteatzen den genero-indarkeriazko egoera abiapuntutzat hartuz.